

Martzelina Kalzakorta Zenarruzabeitia

*Mutriku,
Gipuzkoa
(1931-2015)*

Aurkibidea

Biografia



Martzelina Kalzakorta Galdona auzoko Galdona baserrian jaio zen 1931eko Gabon Zaharretan. Aita eta ama bizkaitarrak ziren, sei anai-arreba izan ziren; Martzelina bera zaharrena. Etxetxiki baserrira ezkondu zen, eta hiru seme-alaba izan zituen. Umetatik gustatu izan zaizkio baserriko lanak, batez ere ganadua eta fruta-arbolak zaintzea.

Zintak

MUT-031

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Bernabe, Ainhoa
- **Data:** 2012-04-18
- **Iraupena:** 90 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Oruesagasti, Ainitze

Pasarteak

1. "Etxe Txiki" eta inguruko baserriak

- **Erref:** MUT-031/002
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:01:14. **Bukatu:** 00:02:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:

"Etxe Txiki", Gabilondonekua eta "Tomorroto" izenez ezagutzen ziren baserrien berezko izenak zein diren aipatzen du. Garai batean, Txurruka kondearen mirabeak "Etxe Txiki"n egoten ziren.

2. Gerrako oroitzapenak

- **Erref:** MUT-031/004
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:06:04. **Bukatu:** 00:06:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Gerrako oroitzapenak. Soldaduen etorrera gogoratzen du. Soldaduek baserria tirokatu zuten.

3. Estraperloan

- **Erref:** MUT-031/005
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:06:57. **Bukatu:** 00:07:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Martzelina umea zela, estraperloan ibiltzen zen. Ondarroatik Mutrikurako bidea oinez egiten zuen.

4. "Etxe Txiki"tik San Migelera

- **Erref:** MUT-031/006
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:07:55. **Bukatu:** 00:10:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskola kontuak. "Etxe Txiki"ko eskolan ibili zen Martzelina. Maistra bere izeba zen, tia Pelipa. Euskaraz ikasten zuten. Ez zuten libururik. Gero, San Migelen ibili zen mojekin 10 urtera arte. San Migelgo maistrak: sor Guadalupe eta sor Felisa.

5. Galdona

- **Erref:** MUT-031/007
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:10:44. **Bukatu:** 00:12:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Martzelina umea zela Galdona nolakoa zen azaltzen du. Etxe berria egin zuteneko kontuak: zenbat kostatu zitzaaien aipatzen du. 11 urterako behiak batzen ibiltzen zen.</p>

6. Seminaristentzako ogia

- **Erref:** MUT-031/008
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:12:41. **Bukatu:** 00:14:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Baserría » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Martzelinaren amak ogia eramaten zien Saturrarango seminaristei, eta horrela diru pixkat ateratzen zuen. Artoa eta esnea ere ematen zien goizean, baina hura nahikoa ez eta seminaristak "protesta" egin zutela dio.

7. Saturrarango kartzela

- **Erref:** MUT-031/010
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:15:19. **Bukatu:** 00:16:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Saturrarango kartzelako kontuak. Kartzelan norbait hiltzen zen bakoitzean, "barranderuan" gurdian eramaten zituzten gorpuak Mutrikuko kanposantura. Saturrarango kartzelan egon ziren Mutrikuko emakume batzuk aipatzen ditu.</p>

8. Bikote kontuak

- **Erref:** MUT-031/012
- **Iraupena:** 0:04:49. **Hasi:** 00:16:44. **Bukatu:** 00:21:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Senarra izango zenarekin harremanetan nola hasi zen kontatzen du. Garai hartan, Martzelinaren ahizpa ezkondu berria zen, eta lagun min bat Argentinara joana zen. Ez zuen kalera ateratzeko lagunik, eta oiloak eta untxiak hazteko afizia sortu zitzaion. Inguruko feria eta tabernetan saltzen zituzten oilaskoak, eta amak asko estimatzen zuen salmenta hartatik ateratzen zuten diruari. Martzelina Debako periatik bueltan zela, autobusean elkarren ondoan jarri ziren eta...

9. Ezkonbidaia

- **Erref:** MUT-031/013
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:21:33. **Bukatu:** 00:23:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

Noiz ezkondu ziren. Ezkon bidaiko kontuak: Bilbo, Santander, Oviedo, Irun, Iruñea, Zaragoza eta Donostia... bisitatu zituzten.

10. Ilarrak

- **Erref:** MUT-031/017
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:31:01. **Bukatu:** 00:32:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Baratze kontuak. Azaroan, ilarra ("idarra") ereiten zuen Martzelinak. Zenbat kilo ateratzen zituen aldiko. Lincoln ilar mota ereiten zuen.

11. Plazako salmenta

- **Erref:** MUT-031/018
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:32:01. **Bukatu:** 00:33:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Plazako salmenta. Martzelinak genero asko eramaten zuen plazara. Bezero finkoak ere bazituen.

12. Plazako kontuak

- **Erref:** MUT-031/021
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:36:39. **Bukatu:** 00:38:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Esnea eta berdura eramaten zuen aurrena. Amaitzen zitzaizkionean, senarraren aitak berriz ere letxuga ekarriko ziola saltzeko. Beste baserritarrekin izandako gorabeherak asko saltzen zuelako...

13. Arrautzak ostu

- **Erref:** MUT-031/022
- **Iraupena:** 0:05:00. **Hasi:** 00:38:12. **Bukatu:** 00:43:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Oiloen salmenta, oparitu ere egiten omen zituen. Arrautzak ostu egiten zizkieten, eta gehiago ez osteko zer neurri hartu zituen kontatzen du.

14. Ametzanean, neskame

- **Erref:** MUT-031/023
- **Iraupena:** 0:03:28. **Hasi:** 00:43:12. **Bukatu:** 00:46:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Neska gaztea zela, Ametza Tabernan ibili zen lanean. Oilaskoak hil eta lumatzen zituen hasieran. Oilaskoa nola prestatzen zuten azaltzen du. Ametzanean eman zen lehenengo banketea gogoratzen du: noren ezkontza zen, eta zer jan zuten.

15. Fruta-arbolak

- **Erref:** MUT-031/026
- **Iraupena:** 0:03:49. **Hasi:** 00:48:54. **Bukatu:** 00:52:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Euskara » Lexikoa
- Baserría » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:

Galdonako fruta-arbolak. Eztitzea, mendua... norekin ikasi zituen. Hiru fruta klase ematen zituen zuhaitz bat omen zuen Martzelinak. "Brindoiak", sagarrak, melokoitiak, okaranak... zituen.

16. Etxeko sagardoa

- **Erref:** MUT-031/028
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:54:36. **Bukatu:** 00:56:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

Sagardoa nola egiten zuten azaltzen du. Dolarea. Sagardoa etxerako izaten zen, ez zuten saltzen. Galdonan bizi zenean, etxerako sagar nahikoa zutenean, saltzen zuten sagarra.

17. Laián egitea

- **Erref:** MUT-031/029
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:56:15. **Bukatu:** 00:57:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Laiak zertarako erabiltzen ziren deskribatzen du. Nabarra zer den. Lurra arearekin labratzen zen.

18. Astoak eta erditzea

- **Erref:** MUT-031/030
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:57:58. **Bukatu:** 00:59:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Astoa ume egiteko dagoenean, ez da ukitu behar. Bere kasara utzi behar izaten zaio.

19. Baratzeko lanak, urte sasoiaren arabera

- **Erref:** MUT-031/031
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 00:59:24. **Bukatu:** 01:02:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa

Laburpena:

Baratzeko lanak zeintzuk ziren, urte sasoi bakoitzean. Azaroan hasten ziren ilarrarekin. Azaro erditik aurrera ereiten zen letxuga. Apirila bukaeran, tomatea. Maiatza hasieran ereiten da baina. Maiatza bukaeran, piperra.

20. Ikurrina aurrenekoz ikusi

- **Erref:** MUT-031/038
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 01:14:37. **Bukatu:** 01:17:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » Politika eta Franco
- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:

Ikurrinaren koloreekin jantzita zihoan herriko emakume bat etxera bidali zuteneko pasadizoa kontatzen du. 14 urte inguru zituela, lehenengoz ikusi zuen ikurrina parrokiako kanpandorrean. Pazko Egun bat zen. Gerora jakin zen ikurrin hura nork jarri zuen.

21. Soldaduak eta kainoiak Galdonan

- **Erref:** MUT-031/039
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 01:17:11. **Bukatu:** 01:20:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra garaiko oroitzapenak. Soldaduen tiroketak. Martzelina umea zen, eta, Galdona inguruan pasioan zebilela, gizon bat hilda aurkitu zuen... Galdonan kainoiak non zeuden aipatzen du. Soldaduak Martzelinaren etxe ondoan egon ziren, eta haiekin joaten zen rantxoa hartzera.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com